

ZAMORAKO AGIRIA

1. — Zamorako arazoaz kezkatuak dauden borondate oneko pertsona guztiei, gotzain apaiz, sekular, zuzendirik dagoen txosten edo informe honek haxe nahi du : Zamorako espetxe konkordatarioran bahiturik dauden apaizek maiz askotan adierazi duten nahia jakin arazi : hau da, espetxe hori kentzea, Sortaldean Katholiko Elizak Estatuarekin batera duen espetxo bakarra delarik, eta beste politiko presoan egoera eta kondiziotara integra ditzatela.

2. — Dokumentu honek espetxeko apaizen bi gutun dakar :

a) Espainiako Gotzain Batzarrari eta, batik bat, Bilbao, Donostia eta Segoviako gotzainei aurtengo Uztailan bidalitako gutuna.

b) 1.972ko Azaroaren 3an Zamorako espetxe konkordatarioraz Espainiako Gotzain Batzarrari bidalitako txostena.

3. — Zamorako konkordatariora 1.968ko Abuztuan « estreinatu » zen, Bizkaiko Lekeitioko apaizlaguntzaile Alberto Gabikagogeaskoa han bahitu zutenean.. Geroztik, ehun-bat egonaldi ezberdin izan espetxe horretan, beste horrenbeste hauzi judizial nahiz gubernatibari zegokionez, eta horiengatik azken bost urte honetan Zamorako espetxe honetatik eta denbora laburragoz beste zenbaitetatik (Basauri, Carabanchel), berrogeita hamar bat apaiz igaro da. Geographiaz, Zamoran bahituriko apaiz gehienak Euskal Herrikoak dira edo ziren ; ondoren, oso urrunean, Catalunya ; Galicia eta Madrid « ex equo » ; eta, azkenik, Asturiaskoak. Egun, zazpi dira han bahituriko apaizak (Bizkaiko 5, Gipuzkoako 1 eta Segoviako 1) :

a) Alberto Gabikagogeaskoa Montxaga, 1.968an TOP-ek kondenatua sei ilabetetara homilia baten gatik eta Burgosko Militar Tribunal batek 1.969ko Ekainan hamabi urte eta egun batetara kondenatua Bilbaoko Gotzaizako bulegoetan egindako gose-opor baten gatik.

b) Xabier Amuriza Sarrionandia, Militar Tribunal horrek berak 10 urtetara kondenatua egun berean eta gauza beragatik (gose-greba).

c) Nikola Telleria Merikaetxeberria, 10 urtetara, id., id.

d) Jesus Naberan Naberan, 12 urtetara, id., id.

e) Julen Kalzada Ugalde, besteak bezala 10 urtetara kondenatua eta beste 12 urtetara kondenatu zuen Burgosko Gudu Kontsekuak 1.970 urtean.

f) Yon Etxabe Garitazelaia, 1.970 urtean Burgosko Gudu Kontsejuak 50 urtetara kondenatu zuen, ETA-koa izatea atik eta beste zenbait salakuntza gatik. 1.969ko Udaberrian sartu zuten Zamoran.

g) Francisco García Salve, « asociación ilícita » delakoaz salatua Comisiones Obreras-en Batzorde Bateratzaile Nazionalako kideztat, « 1001 » hauzianen zain dago, oraingoz fiskalak 19 urtetatok kondena eskatzen diolarik.

4. — Espetxe honetan bahiturik dauden apaizek zera saltzen dute, espetxe hori dela eta agerian jartzen dela Elizak Estatuarekiko duen mirabetza eta menpea eta Estatuak bakarrik, bestalde, agintzen duela espetxe horretan, konkordatoko klausulaz bere erara baliatuz eta berak nahi duen bezala interpretatuz. Konkordatoa alderdi bakarrak erabiltzen duelarik, gabi dago alderdi horrek gehiegikeriaz erabiltzen duela bere poderioa eta beste alderdiak utzikieriaz saldu egin dituela bere eskubideak horrela haren konplize bihurtuz, argi dagoenez.

5. — Estadua bera bezain erantzukidun da Eliza presondegi horretan eta izan ere, konkordatarioritunaren erantzukidun ezezik, espetxe horretan sortu duten egoera zanpatzaile baten erantzukidun da, presondegi honek ez baitu beste gainontzeko presondegiek duten kondiziorik, oraingo egoerak eta espetxeko regimenak, Zuzendariaren bidegabekeriekin batera, han bahiturik dauden apaizen giza-nortasuna zanpatzen eta hondatzen ari baitira.

6. — Zamorako espetxe konkordatarioran preso dauden apaizek hau dute eskatzen

- a) Espetxe hau ken dezatela eta eraman ditzatela gainontzeko preso politikoak dauden espetxetara, haien egoera eta kondiziotan jarritz.
- b) Komentua nahiz espetxea haukeratzea ematea; lehen eskabidea lortzea luza baledi, bakarrik, eta hura utzi gabe, Zamorako espetxeko apaizek oraingo Konkordatoaren letra eta espiritua bete dadila eskatzen dute.
- c) Erantzun dezatela Nuntzio jaunak, Sede Sainduak, Espetxe-Erakundeetako Zuzendari Nagusiak eta Justiziako Ministroak apaiz-presondegitzat improvisatu den espetxe honetako kondizio bereztzaile eta, izatez, zanpatzaileetaz.

7. — Gotzain bakoitzak, bere aldetik, egin dituen gestio geldi eta herabeek lur jo dute orain artean, zivil, judizial eta militar agintariek erakia duten hormaren kontra leherturik. Jakingo du herriak Eliza isildu egin dena, publikoan eta prophetari dagokionez-izen hau eman ahal bagenezaiogegoera hau salatu orde, ez duela deus ere egin, Eliza izanik, ez evangelioaren arrazoinerik baizik bai juridiko eta konkordatarior arrazoinerik, egoera honen erantzukidun.

8. — Garai hoberenetako Eliza beretarren espetxeaz axolatua bizi zen, « hiltzaile nahiz lapur » (I Petr. IV, 15) izan gabe espetxean zirenean. Gehiegi eskatzea ote, gaurko Elizak beretarrentzat eska dezan, baztertzat eta apaiz hauek espetxera eraman dituen kristau-ideien iraintzaile izango ez den espetxe bat?

ZAMORAN ESPETXERATUAK DIREN LAGUNEKIN BAT EGINAZ
APAIZ EUSKALDUNAK.

1973ko Urrian.

Zamorako Espetxetik Gotzainei

1. — Aienbatetan eta pertsonalitate bati eta besteri agertu diogun gure nahia hau da : gainontzeko beste politiko presoan egoeran eta kondizioetan gu integratuz, Espetxe Konkordatarior hau KENTZEA. Aski ezagunak dituzte eliz'agintariek arrazioak.

Bost urte honetan arazo honi buruz ez dugu aldeko ozor ikusi. Alderantziz, gure eskabideak ozortarako ez zirela ikusiz, batzuek horretarako dagoon bide bakarra hautatu dute : apaizgoa uztea. Bestalde, harritzeko da konbentua eskatzen dutenei, ez ematea.

Zer espetxe da, orduan, hemengo hau, gainontzeko beste politiko presoekin egotea edota konbenturen batetara irtetoa uzten ez baitute, Konkordatoan horrela erabakirik egon arren?

Hau da, izan ere, Sartalde osoan Elizak Estaduarekin batera duen espetxe bakarra, horretan Eliza Estaduaren mirabo eta mendeko dela age-

riz ; Estadua bakarria baita, gainera, espetxe honetan agintzen duena, bere era eta gustora interpretatua Konkordateko klausulak, gu etenago eta inkomunikatuago gordetzeko arren.

Baina, Estadua bezain responsable da espetxe honetan Eliza eta zuzenean erantzukidun ezezik, « leku » honetan sortu den egoera zapaltzaile eta eramanezikoaren erantzukidun ere bai baita, « loku » honek duenarik beste edozoin presondegiaren kondiziorik, Probintziako Presondegitarako, preventivoentzat, eratua baitago.

2. — Goizeko 2,30etan lo egiten uzten ez zitoelarik eta protestatu zuelako 30 egunetarako zeldatara kastigatua dugu lagun bat. Gertakizun hau « Espetxe Probintzial » honetako ageri bat da ;

a) Denek batera logola bakarrean egiten dugu lo. Zergatik gaduzkate apaizek, beste edozoin espetxetako zeldan antzokorik duen espetxe batetan ?

b) Espetxe honetako zuzendariak, gauzak erraztu eta irtenbideak eman ordez, eragotzi egiten digu, larriki, loa, batean goizeko hiruretan zenbatze ofiziala dela, bestean funtzionarioen joanetorriak gau guztian, ateen kirrinkak, argi eta linternen distirak eta direla, lo egitea ia ezinezkoa zaigularik.

c) Oraingo zuzendariak seguridade eta bigilantziagatik dela esanaz zuritu nahi du kontua ; esan ere esan digu « behar baledi, bola bati lotuko gintuzkeela » ; « gure problemak bost axola zaizkiola » ; « berari axola zaion gauza bakarria, guk ihes egin ez dezagula dela » eta horretarako beste ainteste funtzionario ekarri behar bada « berari gogoak ematen diona egingo dela ». Gaurko egunez, 3 funtzionario dugu zortzirentzat, « zerbitzu jefeez » eta horrelakoez gainera ; horrelako proportziorik ez dago inolaz ere, ez eta espetxe berezietan, inadaptatuetan ere, Cartagenakoan esate baterako.

d) Logela luze hau dela eta neurrigabeko bigilantzia dela eta bada zenbait ilabete lorik egin ezin dugula.

3. — Espetxe Probintzial honen kondizio txarra, kirol bat ere egin ezina da. Berez ttiki den patio, zuloz eta hautsez josia dago, eta ketan dagoen ximini pean dagoenez, gainera, koharra bertan pilatzen da.

4. — Apaizentzat jarria dagoen Espetxe honen hirugarren kondizio txarra, inolako bizitz privaturik egin ezina da. Zeldak individualik ez ; « estudio » bat bera denentzat eta denerako (telebista ikusteko, osori, jolasteko, ikasteko) etengabeko zigorra da, ezin baita bakarrik egon ez eta komonean ere.

5. — Espetxe honek berez ezin ditu bere, hemen systemaki zanpaturik dauden hiru eskubide oinharritzko : lo egiteko eskubideak, kroletako eskubidea eta bizitz privatu baterako eskubidea.

6. — Espetxe honetan konpondu ezin diren kondizio hauez gainera, oraingo Zuzendariak berak sorturiko eragozpen eta bidegabekeriak ditugu. Gorago esanaz gainera, Zuzendari honek, berez nahiz Madridetik datozkiokeen aginduez,

— konprometitu dezaketen — berak esan duen bezalaxe — Zuzendariatzako erabal eta aginduak firma arazi nahi digu, duplikaturik eman gabe.

— Gure zenbait eskutitz gorde hoi du, argibiderik eman gabe.

— Humorezko eta denbora emateko aldizkariak galeratzen dizkigu.

— Espainian ofizialki argitaraturiko liburu asko sartzen ez du uzten.

— Gu ikustera etorriek ekarritako zonbait janarien lista luze bat, bat batean, sartzea galerazi digu.

— Bisita denbora ain motza izanik (ordu erdi bat) eta gure etxeakoak ain urrundik datozelarik, goizez izandako senideei arratsalde zuzenean etortzen galerazi die, exigentziekin joan zitzaikiola esanaz.

7. — Agertu dugun guzia aurrean dugularik, zuengana jotzen dugu, ez baita literatura hutsa esatea zuek sortu eta eusten duzuela « Zamorako Espetxe Konkordatorio » honetako egoera hau. Horregatik dizuegu eskatzen :

— eska dezazuela itxuragabeko zigor horrietatik gure laguna atera dezaten

— Espetxe « Konkordatario » hau ken dezaten saia zaitezela

— azken hau iristen ez den arte, eraman gaitzela, gutienez, kondena luzeko presoentzako espetxe egoki batetara

— Ager dezaiozuela Gotzainen Batzarrari egoera hau

— eska dezaiozuela apaizen espetxetako improvisatua den Gartzela honetako kondizio diskriminatzaile eta zanpagarrien erantzukizuna Nuntzio jaunari eta Erromako Sede Santari, Espetxen Zuzendariari eta Justizia Ministroari

— eman dezaiozuela « Zamorako Espetxe Probintzial » honetan dugun egoeraren berri bai apaizei bai herriari gure elizbarrutietan.

8. — Azkenik, guk gure aldetik, ahaleginak eginen ditugu apaizek eta herriak gure dei hau, gure arazoak eta zuei egin dizkizuegun eskabideak jakin ditzaten, « Zamorako Espetxe Probintzial »n honetan guk dugun egoeraren erantzukidun zuek ere bai baitzarote Estadua aina.

Horrelaxe, bada zuen gestioek azker ezer lortzen ez dutela ikus badezagu, ahaleginak egingo digutu zuen nagikeria eta ezentzuna herriak jakin dezan, arazo honetan zuek, ez evangelioko arrazoiz, baizik Elizak berak izenpetu dituen juridiko eta konkordatoko arrazoiz, erantzukidun baitzarete, bete betetan.

Zamoran eta Eliza eta Estaduaren Espetxe Probintzialean
1973ko Uztaila.

A LOS OBISPOS desde la prisión de Zamora

1. Nuestro deseo, expuesto por enésima vez y a las más diversas personalidades, es la SUPRESION de esta Cárcel Concordataria, para integrarnos a la situación y condiciones de los demás presos políticos. Las razones son de obra conocidas por las autoridades eclesiásticas.

Llevamos más de 5 años sin ver nada positivo al respecto. Al contrario, a la vista de la inutilidad de nuestras peticiones, algunos han tenido que tomar el único camino existente para tal fin : la secularización. Por otro lado se dá la chocante realidad de que, a quienes piden convento, no se les concede.

¿Qué cárcel es ésta, entonces, en que no se permite estar con los demás presos políticos ni se deja salir al convento a pesar de estar estipulado en el mismo concordato ?

Sencillamente, es ésta la única cárcel que tiene la Iglesia a una con el Estado en todo el Occidente, cárcel en que se pone de manifiesto el servilismo de la Iglesia hacia un Estado que por otra parte, es el único que dicta su voluntad en esta cárcel, aprovechando e interpretando a su gusto la cláusula concordataria para tenernos mejor incomunicados.

Pero la Iglesia sigue siendo tan responsable de esta cárcel como el mismo Estado, y en calidad de responsables directos, nos dirigimos a los miembros de esa Conferencia Episcopal, responsables no sólo del tratado concordatario, sino de una situación inhumana e insostenible creada en este « lugar » que ni siquiera reúne las condiciones de un penal